


LIBURUKA

2019-2020



Donostia Kulturako Liburutegien Sareak irakurketa sustatzeko **LIBURUKA** LIBURUKA proiektua abiarazi zuen 2018-2019 ikasturtearen hasieran, hiriko hainbat ikastetxeren parte-hartzearekin. 2019-2020 ikasturtean ere proiektuak jarraitzen du, lau ekimen hauek eskainiz:

1. Motxila txikia liburutegia, eskola eta familia lotzen dituen programa da, eta Haur Hezkuntzako (3-5 urte) eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloko (6-7 urte) ikasleei zuzenduta dago. Haurrak liburutegira joaten dira liburuak aukeratzera eta liburu horrek ibilbide bat egiten du: liburutegitik etxera, etxetik eskolara eta eskolatik berriz liburutegira.

2. Irakurle Gazteak egitasmoaren xede nagusia da Donostiako ikastetxeei liburutegietan mailegagarri dauden liburuak eskaintzea. Lehen Hezkuntzako (6-11 urte) eta DBHko 1. zikloko (12-13 urte) ikasleei zuzenduta dago. Liburutegiek proiektu honetarako hautatuak izan diren liburuak mailegatzen dizkiete ikastetxeei, bi hilabete t'erdiko epean ikasgeletan irakur ditzaten. Liburu mota desberdinak (albuma, narratiba, poesia, antzerkia, komikia eta ezagutza liburuak) bidaltzen dira, euskaraz nahiz gaztelaniaz idatziak. Mailegu-epea bukatu ondoren, ikasleei gehien gustatu zaizkien liburuak **Liburu dantza** blogean gomendatzen dira.

3. Areto literarioak irakurtzeko zaletasuna sustatzeko, Galtzagorri Elkartarekin elkarlanean. 2019an, *Adur, Adur, ez naiz zure beldur* aretoa eskainiko da (udal liburutegiko Mandasko Dukearen aretoan, Konstituzio Plazan). Areto hau 8 eta 10 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago eta beldurraren gaia lantzen da bertan, euskarazko haur eta gazte literatura oinarri hartuta. Jarduera Liburutegi Nagusiko Haur Sailaren (Fermin Calbeton, 25) bisitarekin osatuko da.

4.- Etengabeko formakuntza eskaintzen zaie Donostia Kulturako liburutegietako langileei, haur eta gazte literaturaren inguruan, erabiltzaileei irakurketari lotutako gomendiorik eta aholkurik egokienak ematen jakiteko.

+ **Info:** haurliburutegia@donostia.eus

LIBURUTEGIAK
BIBLIOTECAS
WWW.DONOSTIAKULTURA.EUS